



AKTEA/08

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA
(2025-03-18)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2025-03-18 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:32
Amaiera-ordua:	08:52
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA URIARTE ANASAGASTI VICTOR ORTUZAR BUTRON XABIER GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	
Idazkaria:	URIARTE LEJARRAGA JURDANA



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Datea: 20/03/2025

Lekua: Bermeon

Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2025-03-11 TGB (07)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiakorik daukaten adieraztea.
- 3.- Baratz Eder 17ko lokalean etxebizitza berria eraikitzeko obra lizentzia ematea onartzea.
- 4.- Intxausti kalea 14an etxebizitza turistikoak egiteko obra lizentzia ematea onartzea.
- 5.- Zubiaur tar Kepa kalea 51ko jabe elkarteak eraikinean irisgarritasun baldintzak hobetzeko obra lizentzia ematea onartzea.
- 6.- Talaranzko kalea 12ko lokala etxebizitza bihurtu ondoren bizigarritasun lizentzia ematea onartzea.
- 7.- Agarre auzotik egurra ateratzeko lizentzia eskaria onartzea.
- 8.- 72405948-Q NAN zenbakidun langileak egindako esdoskitze lizentzia eskaria onartzea.
- 9.- 72400397-P NAN zenbakidun langileak umea zaintzeko egindako eszedentzia eskaria onartzea.
- 10.- Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 11.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2025-03-11 TGB (07)

Bertaratutako batzarkideek 2025eko martxoaren 11ko 07/2025 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412
Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIAKORIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- BARATZ EDER 17KO LOKALEAN ETXEBIZITZA BERRIA ERAIKITZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA ONARTZEA.

Gaia

Baratz Eder 17A zenbakian dagoen lokaleko bizigarritasun lizentzia.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2022ko abuztuaren 4an, J.A.F.F. jaunak obra baimena eskatu zuen 21.1 areako Baratz Eder urbanizazioko 17 zenbakidun lokalean etxebizitza berria eraikitzeke, etxebizitza adosatua. Horretarako, Arkideiak S.L.P arkitekto taldeak garatutako proiektu basikoa aurkeztu zuen.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, 57.892,00 eurokoa izango zen obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua.

Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsi gabe aurkeztu zen, hala ere, bertan dago "Segurtasuna sutea egonez gero" oinarrizko agiriaren justifikazioa (CTE-DB-SI), "Erabilera Segurtasuna eta Irizgarritasuna" oinarrizko agiriaren justifikazioa (CTE-DB-SUA) eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Bigarrena.- 2022ko irailaren 29an, garaiko udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hirugarrena.- 2022ko azaroaren 15ean, J.A.F.F. jaunak zuzenketak barneratuta zituen proiektu basikoa aurkeztu zuen.

Laugarrena.- 2023ko ekainaren 23an, garaiko udal arkitektoak txostena egin zuen.

Bosgarrena.- 2023ko ekainaren 26an, garaiko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko teknikariak txostena egin zuen.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412
Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Seigarrena.- 2023ko uztailaren 4an izandako batzarrean, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen obra lizentzia eskaria onartzea.

Zazpigarrena.- 2023ko abuztuaren 21ean, J.A.F.F. jaunak Arkideiak S.L.P arkitekto taldeak garatutako exekuzio proiektua aurkeztu zuen.

Proiektua dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsiarekin aurkeztu zen (2023-08-18). Bertan ondorengo justifikazioak jaso dira: Eraikuntzako Kode Teknikoaren justifikazioa jaso (SI, SUA, SE, HS, HR eta HE); 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen; eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria; eraikinen energia-kalifikazioa; segurtasunari eta osasunari buruzko oinarrizko azterlana; kalitatea kontrolatzeko plana; eta hondakinak kudeatzeko azterlana. Aurkeztutako proiektuaren arabera, 65.262,50 eurokoa izango zen obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua.

Zortzigarrena.- 2024ko ekainaren 11n, J.A.F.F. jaunak bizigarritasun lizentzia eskatu zuen. Horretarako hainbat dokumentu aurkeztu zituen: Arkideiak S.L.P arkitekto taldeak garatutako memoria; obra-bukaerako ziurtagiria; kalitate-kontrolaren ziurtagiria; kalitatea kontrolatzeko liburua; aginduen liburua; hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena; eta hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena egiaztatze eskaera.

Bederatzigarrena.- 2024ko uztailaren 5ean, Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitektoak etxearen ikuskapena egin zuen.


Hamargarrena.- 2024ko uztailaren 19an, J.A.F.F. jaunak eraikuntza- eta eraispen-hondakinen kudeaketaren azken txostena egiaztatzearen ziurtagiria aurkeztu zuen.

Hamaikagarrena.- 2024ko uztailaren 30ean, Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitektoak etxearen bigarren ikuskapena egin zuen.

Hamabigarrena.- 2024ko abuztuaren 20an, J.A.F.F. jaunak aurkeztu zuen behe-tentsioko instalazio berria abiarazteko erantzukizunpeko adierazpena.

Hamahirugarrena.- 2024ko uztailaren 21ean udal arkitektoak txostena egin zuen.

Hamalauagarrena.- 2025eko otsailaren 24an Urigintza teknikariak txostena egin zuen.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Argudioak

Lehenengoa.- 2024ko uztailaren 21ean hurrengokoa adierazi zuen udal arkitektoak bere txostenean:

Obra amaierako dokumentazioarekin batera hurrengoa aurkezten da:

- *Arkideiak s.l.p arkitekto taldeak garatutako obra amaierako proiektua (memoria eta planoak), dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsiarekin (2024-06-05).*
- *obra amaierako likidazioa (65.262,50 € exekuzio materialaren kostua)*
- *obra amaierako ziurtagiria*
- *kalitate-kontrolaren ziurtagiria*
- *kalitatea kontrolatzeko liburua*
- *aginduen liburua*
- *hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena*
- *hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena egiaztatzeko ziurtagiria*
- *behe-tentsioko instalazio berria abiarazteko erantzukizunpeko adierazpena*

Egindako ikuskapenetan, proiektuan definitutako lanak gauzatu direla ikusi da.


Hortaz gain, egindako obrak bat datoz aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik obra legeztagarria da eta ez legoke eragozpenik bizigarritasuna emateko aipatutako etxebizitzari, legezatzeko dokumentazio guztia espedientean baitago.

Bizigarritasuna lortu ondoren, sustatzaileak Bizkaiko Foru Aldundiko Katastroan izapidetu beharko du higiezinaren alta, etxebizitza gisa, eta Katastroko erregistroko idazpenaren kopia eman beharko dio Udalari.

Proposamena

Txosten honetan azaldutakoa, oker eta hutsik ezean, interesdunei jakinaraztea proposatzen da.

Bigarrena.- Hasteko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xedatutakori jarraituz, 207 artikuluan aipatutako ekintzak hirigintzako lizentzia behar dute, besteak beste, obren lehenengo erabilpenak.



Sinadurea eta data



Baimena emateko prozedurari dagokionez, honela laburbildu daiteke:

a) Hasiera

Prozedura interesdunak eskaturik hasiko da. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko da eta dagokion dokumentazio tekniko erantsi: proiektua, kasu bakoitzeko legeriak eskatzen dituen baimenak, eta, beharrezkoa izanez gero, dagokion emakida. (210.2. artikulua)

Gure kasuan, bai proiektua, bai gainerako legeriak eskaturiko baimen eta ziurtagiriak aurkeztu direla ikusi da, lehen argudioan, udal arkitektoaren txostenari erreferentzia egin zaion horretan, zehaztu bezala.

b) Instrukzioa

Baimena eman aurretik, udal zerbitzu teknikoek beharrezko txostenak egin beharko dituzte, eskatutako lizentzia hirigintzako legediarekin bat datorrela egiaztatzeko. (210.4.artikulua)

Prozeduraren instrukzioan zehar baimenaren eraginpeko beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea derrigorrezkoa den kasuetan, udalak eskabidea aurkeztu dela jakinarazi beharko zaie, hilabeteko epean behar diren txostenak egin ditzaten, bere eskumenaren arabera. Hilabeteko epean txostenik ematen ez bada, udal baimena emateko prozedurarekin jarraitu ahal izango da. Kasu honetan, ez da beharrezkoa beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea. (210.3. artikulua)

Gure kasuan, udal arkitektoak bere txostena egin zuen 2024ko uztailaren 21ean, eta Urigintza teknikariaren txostena da honako hau.

c) Ebazpena

Behar diren txostenak egin ondoren, organo eskudunak baimena emateari buruzko ebazpena emango du, espedientean dauden datu guztiak ikusi ondoren (210.4. artikulua), eta hori ezezkoa denean, arrazoitu egin beharko da (210.5. artikulua).

Kasu honetan, alkateak izango du eskumena, hirigintza lizentziarako 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, TAOLeko 21.1.q) artikularekin bat etorritik, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 2024 000001886 Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu



Sinadurea eta data



Batzarrak eskuordetuta dauka.

Hirugarrena: Araudi aplikagarriak ez badu berariaz jasotzen ordenantza baten bidez (Bermeoren kasuan bezala) eta modu subsidiarioan, berariazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, lizentzia-eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita, udalak zuzentzeko edo hobetzeko errekerimendurik egin barik (2/2006 Legearen 210.7 artikulua).

Gure kasuan, Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 r) eta 210 artikuluek eta Hirigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2024ko uztailaren 21ean egindako txostenean aipatzen den bezala.

Laugarrena: Aurretiaz adierazi den moduan, Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, hirigintza lizentziak emateko eskumena alkatearena den arren, eskumen hori 2024ko irailaren 24ko 2024 000001886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:


LEHENENGOA.- 2022ko abuztuaren 4an, J.A.F.F. jaunak Baratz Eder urbanizazioko 17 zenbakidun lokalean etxebizitza berria eraikitzeko eskatutako obra baimena onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Bizigarritasun lizentzia lortu ondoren, BFAko Katastroan izapidetzea higiezinaren alta, etxebizitza bezala, eta Katastroko erregistroko idazpenaren kopia ematea udalari.

LAUGARRENA.-Erabaki hau helaraztea Errenta Sailari, dagozkion ondorioetarako.

BOSGARRENA.- Erabaki honen berri eman hurrengo Osoko Bilkuran.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412
Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



4.- INTXAUSTI KALEA 14AN ETXEBIZITZA TURISTIKOAK EGITEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA ONARTZEA.

Gaia

Intxausti kaleko 14an dagoen eraikinean, etxebizitza turistikoak egiteko obra lizentzia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2024ko abuztuaren 7an, Arturo García Martínez de Baroja arkitektoak, berak garatutako proiektuan oinarrituta, V.O.T.ren izenean obra baimena eskatu zuen Intxausti 14ko eraikinean etxebizitza turistikoak egiteko.

Bigarrena: 2023ko uztailaren 11n aurkeztutako proiektua Elkargo Ofizialaren ikus- onetsiarekin aurkeztu zen, eta proiektuan batzen dira: Segurtasun eta Osasunaren Oinarrizko Azterlana, Kalitate Kontrolaren Plana, Hondakinak Kudeatzeko Azterlana eta Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiria.

Hirugarrena.- Aurkeztutako proiektuaren behin-behineko exekuzio materialaren aurrekontua 66.956,51 eurokoa izan zen (65.828,51 euro, hondakinen kudeaketa zein segurtasun eta osasuneko partidak kenduta).

Laugarrena.- 2024ko apirilaren 22an, Arturo García Martínez de Baroja arkitektoak Bermeoko Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren justifikazioa, Euskadiko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Dekretuaren (254/2020 Dekretua) justifikazioa, gela bizigarrien argiztapen eta aireztapen baldintzen justifikazioa (198/2013 Dekretua) eta energia auditoria egin izanaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu zuen.


Bosgarrena.- 2024ko abenduaren 18an udal arkitektoak txostena egin zuen.

Seigarrena.- 2024ko otsailaren 21ean Urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Zazpigarrena.- 2024ko otsailaren 21ean Urigintza teknikariak erabaki proposamena egin zuen.

Oinarri juridikoak

Lehenengoa.-Bai txosten teknikoan, bai txosten juridikoan azaltzen den bezala, 2024ko abuztuaren 7an, Arturo García Martínez de Baroja arkitektoak, V.O.T.ren izenean



Sinadurea eta data



eskatutako obra baimena bat dator hirigintza araudiarekin.

Bestalde, Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207. eta 210. artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/1978 Errege Dekretuaren 3. eta 4. artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator.

Bigarrena.-Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2. artikulua Toki Administrazioen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, obra lizentziak emateko eskumena alkatearena den arren, eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 1886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta du.


Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aurreko guztia kontutan hartuta, eta arkitektoaren txostenarekin bat eginez, 2024ko abuztuaren 7an, Arturo García Martínez de Baroja arkitektoak, berak garatutako proiektuan oinarrituta, V.O.T.ren izenean, Intxausti 14ko eraikinean etxebizitza turistikoak egiteko obra baimenaren eskaria **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Bermeoko HAPOaren IV. tituluko lehenengo kapituluko eraikuntzako baldintza orokorren zehaztapenak bete beharko dira.
- Eraikuntzaren kode teknikoaren, EKT aldatzen duen 732/2019 Dekretuan xedatutakoa beteko da, baita bere oinarritzko dokumentuek zehazten dutena ere (DB-SUA, DB-SE, DB-SI, DB-HS, DB-HE, DB-HR).
- Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.



Sinadurea eta data



- Aurkeztutako eta onartutako proiektuari hertsiki lotuta egingo dira obrak.
- Aldamua Intxausti kalean behar izanez gero, gutxienez 3 metroko pasabide librea utzi beharko da.
- Kontainerra behar izanez gero, bide publikoaren okupaziorako lizentzia eskatuko da eta Udaltzainekin adostu beharko da kontainerraren kokapena.
- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta bost (5) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan. Obren hasiera eta amaiera udalari jakinarazi beharko zaizkio.
- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, udalari aldeztu aurretik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio, eta gorabehera horien erantzuletzat joko da.
- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarritz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.

Lizentziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea izango da; udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.

- Lizentziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
- Lizentziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizentzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

HIRUGARRENA.- Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoria batekin.

Era berean, ikuspuntu desberdinetatik ateratako lau (4) argazki aurkeztuko dira gutxienez.

- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:

- a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelanetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispen-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.


- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalaturia.

LAUGARRENA.- Egin beharreko obrak lizentziaren bidez baimendutakoak baino ez dira izango. Baimendutako obretan egin nahi den aldaketa oro udalari jakinarazi beharko zaio, eta beste lizentzia bat eskatu beharko da. Obrak gainditzeak edo lizentzia baldintzak ez betetzeak obrak geldiaraztea eta dagozkien administrazio-zehapenak ezartzea ekarriko du.

BOSGARRENA.- Lizentzia hau edo haren kopia kautotua obrak egiten diren lekuan egongo da, udal zerbitzu teknikoaren eskura, eta zerbitzu horrei ikuskapenetarako eta egiaztapenetarako sarbidea eman beharko zaie, 2/2006 Legearen 217. eta 218. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

SEIGARRENA.- Obraren aurrekontua 65.828,51 €koa da (kalitate-kontrol eta segurtasun eta osasun partidak kenduta). Obrak gehienez ere sei hilabeteko epean hasi beharko dira, lizentzia jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta gehienez ere hiru hilabetez eten ahalko dira. Ohartarazten da ebazpen honetan adierazten diren fidantzak gordailatu aurretik ezin izango dela obrekin hasi. Era berean, obrak egiteko epea bost hilabetekoa izango da, eta ohartarazten da adierazitako epeak obra hasi, jarraitu edo amaitu barik badaude, hurrenez hurren, udalak lizentzia iraungitzeko espedientea hasiko duela, interesdunak aipatutako obra egiteko luzapena eskatzen ez badu behintzat.

ZAZPIGARRENA.- Obrak egiten diren bitartean, legez eskatu daitezkeen segurtasun



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



neurri guztiak hartuko dira, obretatik hurbil dauden pertsoneri kalterik ez egiteko.

ZORTZIGARRENA.- Lizenziaren titularraren kontura izango dira bidean eta kasuan kasuko zerbitzu publikoetan sortu daitezkeen kalteen edo ukipenen ondorioz beharrezkoak diren birjartzeak, baldin eta obrak gauzatzearen ondorio badira.

BEDERATZIGARRENA.- Obretako hesi, aldamiio eta gainerako elementu osagarriekin eremu publikoa okupatzen bada, dagokion eskaera aurkeztu beharko da udalean.

HAMARGARRENA.- Lizenzia hau emandakotzat joko da jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubideari kalterik egin gabe, eta lizenziaren titularraren erantzukizun eskusiboan.

HAMAIKAGARRENA.- Baimen honek eragina izango du udalaren eta lizenziaren titularraren artean, baina ez ditu aldatzen haren eta gainerako pertsonen arteko egoera juridiko pribatuak.

HAMABIGARRENA.- Errenta Sailari erabaki hau igortzea, dagozkion tasak eta tributua likidatzeko.

HAMAHIRUGARRENA.- Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, bidezkoak diren errekurtsioak adieraziz.

5.- ZUBIAUR TAR KEPA KALEA 51KO JABE ELKARTEAK ERAIKINEAN IRISGARRITASUN BALDINTZAK HOBETZEKO OBRA LIZENTZIA EMATEA ONARTZEA.

Gaia

Zubiaur tar Kepa 51n kokatutako eraikinaren irisgarritasun baldintzak hobetzeko obra baimenaren eskakizuna.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2023ko urriaren 23an, M.T.L.R.ek Zubiaur tar Kepa kaleko eraikinean irisgarritasun baldintzak hobetzeko lanen obra baimena eskatu zuen, Zubiaur tar Kepa 51 Jabe Elkargoaren izenean.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Horretarako, Diego Arzanegi Elgezabal arkitektoak izenpetutako proiektua aurkeztu zuen, Elkargo Ofizialaren oniritziarekin (2021-01-14).

Proiektuan bertan daude: Kalitate kontrolaren plana, Segurtasun eta Osasunaren Oinarrizko Azterlana eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, obraren exekuzio materialaren behin-behineko kostua 38.901,45 eurokoa litzateke.

Bigarrena: 2024ko apirilaren 9an udal arkitektoak aldeko txostena egin zuen.

Hirugarrena: - 2025eko otsailaren 24ean, Urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Oinarri juridikoak

Lehenengoa: Udal arkitektoaren txostenean honako hau aipatzen da:

Eraikina HAPOk 12.3 bezala mugatutako Lurralde Arean kokatzen da. Bermeoko HAPOk R.2 bezala kalifikatzen du eraikina kokatzen den gunea; hau da, etxebizitza nahasiko eremu bezala kalifikatzen du.


Esku hartze honetan kontuan izan beharreko araudia hurrengoa izango da:

- HAPOaren IV. tituluko lehenengo kapituluko eraikuntza baldintza orokorrak.
- EKT Eraikuntzaren Kode Teknikoa.
- Irisgarritasuna sustatzeko, abenduaren 4ko, 20/1997 Legea.
- 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen.
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

ERAIKUNTZARAKO KODE TEKNIKOAK

- 1) SUA Erabilera eta irisgarritasunen segurtasuna_ Proiektuan justifikatzen da.
- 2) SE Egituraren Segurtasuna _Proiektuan justifikatzen da.
- 3) HS Osasungarritasuna_ Proiektuan justifikatzen da.
- 4) SI Suteen Kontrako Araudia_ Proiektuan justifikatzen da.

68/2000 IRISGARRITASUN DEKRETUA_ Proiektuan justifikatzen da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Jarraian, udal arkitektoak proposamena egiten du, proiektua indarrean dagoen eta aplikaziokoa den araudiarekin bat datorrela esanez. Hortaz, eskatutako lanak baimentzeko eragozpenik ez legokeela aipatzen da, nahiz eta zenbait baldintza kontutan izan beharko diren.

Bigarrena: Urigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 eta 210 artikuluek eta Urigintza Diziplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator ere hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2024ko apirilaren 9an egindako txostenena aipatzen den bezala.

Kasu honetan, obra lizentzia eman beharra dago, 2/2006 Legeko 207.1 artikulua ezartzen duen moduan. Baimena emateko prozedurari dagokionez, honela laburbildu daiteke:

a) Hasiera

Prozedura interesdunak eskaturik hasiko da. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko da eta dagokion dokumentazio teknikoa erantsi.


Eskaera 2023ko urriaren 23an egin zen, proiektuarekin batera, eta azken honen barnean egonik: Kalitate kontrolaren plana, Segurtasun eta Osasunaren Oinarrizko Azterlana eta Hondakinak Kudeatzeko Azterlana.

b) Instrukzioa

Baimena emon aurretik, udal zerbitzu teknikoek beharrezko txostenak egin beharko dituzte, eskatutako lizentzia hirigintzako legediarekin bat datorrela egiaztatzeko.

Prozeduraren instrukzioan zehar baimenaren eraginpeko beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea derrigorrezkoa den kasuetan, udalak eskabidea aurkeztu dela jakinarazi beharko zaie, hilabeteko epean behar diren txostenak egin ditzaten, bere eskumenaren arabera. Hilabeteko epean txostenik ematen ez bada, udal baimena emateko prozedurarekin jarraitu ahal izango da. Kasu honetan, ez da beharrezkoa beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea.

Kasu honetan, udal arkitektoak 2024ko apirilaren 9an egin zuen txostena; Urigintza teknikariak, berriz, idazki honen bitartez.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H9O7

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E900126C7400Y1H0Y5K2H9O7



c) Ebazpena

Behar diren txostenak egin ondoren, organo eskudunak baimena emateari buruzko ebazpena emango du, espedientean dauden datu guztiak ikusi ondoren. Kasu honetan, alkateak izango du eskumena, hirigintza lizentziarako 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, TAOLeko 21.1.q) artikuluekin bat etorriz, baina eskumen hori 2024 000001886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.


Gainera, lizentzia ematen duen ebazpenak, gitxienez, honako hauek jaso beharko ditu: obra hasteko epea, egikaritzeko gehieneko epea eta sustatzaileari egotzi ahal zaizkion arrazoiren batengaitik obren exekuzioa etenda egon daitekeen gehieneko aldia, 2/2006 Legearen 215. artikulua ezartzen dauen bezala.

Hirugarrena: Araudi aplikagarriak ez badago berriaz jasotzen ordenantza baten bidez eta modu subsidiarioan, berriazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, lizentzia-eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita, udalak zuzentzeko edo hobetzeko errekerimendurik egin barik (2/2006 Legearen 210.7 artikulua).

Laugarrena: Obra lizentzia eskuratzeko egintza eta eragiketak burutzeko zilegitasuna ematen du, bai eta kasuan kasuko erabilerak ezarri eta garatzeko ere. Hala ere, ezin izango dira inolaz ere eskuratu, ez administrazioaren isiltasun positiboaren bidez, ez hirigintza-antolamendurekin ez indarrean dagoen legeriarekin bat ez datozen ahalmen edo eskubideak, 2/2006 Legeko 211.1 artikulua ezartzen duen moduan.

Lizentziak hirigintza-antolamenduko planeamendurekin bat ez badatoz gerora, tresna barri bat onartzearen edo lizentzia emotean indarrean dagoena aldatzearen ondorioz, eta obrak oraindik amaitu ez badira, udalak arazoituta adieraziko dau desadostasuna, eta, kautelazko neurri gisa, obrak berehala etetea erabaki beharko du, gehienez ere lau hilabetez.

Epe horren barruan, eta interesdunari entzun ondoren, lizentzia osorik edo zati bat ezeztatu ahal izango da, eta hasitako obrak nola eta zein baldintzatan amaitu ahal izango diren zehaztuko da, eragindako kalte-galerengatik zer kalte-ordain emongo den zehaztuta.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412
Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Bosgarrena: Obrak hasi barik badaude edo amaitu barik badaude, edo sustatzaileari egotzi ahal zaion arrazoiren batengaitik etenda badaude, lizentzian ezarritako epeak urratuz, udalak lizentzia iraungi dela adierazi beharko du, aldez aurretik administrazio prozedura abiarazita eta interesdunari entzunda, eta hori guztia kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik barik (2/2006 Legearen 216. artikulua).

Egoera hori saihesteko, lizentzian aurreikusitako epeak luzatzeko eskatu ahal izango da, era arrazoituan. Hala ere, lizentzia iraungi dela adierazi ondoren, interesdunak berriro eskatu ahal izango du, edozein unetan.

Seigarrena: Hondakinen kudeaketari dagokionez, Eraikuntzako eta eraispeneko Hondakinen Ekoizpena eta Kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenez, obra-lizentziak lortzeko, udalek fidantza bat eratzeko eskatu beharko dute, obra handietatik datozen eraikuntza eta eraispeneko hondakinen kudeaketa egokia bermatzeko, hondakinen kudeaketaren kostuaren % 120koa, baimenaren eskatzailea Erkidegoko Ingurumen Kudeaketa eta Auditoretzako Sistemari (EMAS) atxikitako erakundearen erregistroan inskribatuta dagoen kasuetan izan ezik.


Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aurreko guztia kontutan hartuta, eta arkitektoaren txostenarekin bat eginez, M.T.L.R.ek, Zubiaur tar Kepa 51ko Jabe Elkargoaren izenean, Zubiaur tar Kepa 51ko eraikinean irisgarritasun baldintzak hobetzeko lanen obra lizentzia emateko eskaera **onartzea**.

BIGARRENA.- Obra lizentziaren eraginkortasuna arkitektoaren txostenean ezarritako ondorengo baldintzak betetzera baldintzatzea:

- 112/2012 DEKRETUAK, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispene-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu. Hondakinen kudeaketari dagokion aurrekontua Hirigintza Sailean aztertu ostean, obrak hasi aurretik, 5. artikuluan zehazten den fidantza ezarriko du Udalak. Obren sustatzaileak fidantza hori obrak hasi aurretik jarri beharko du, bestela obra baimenak ez du baliorik izango



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data


JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- Lanak direla eta, espazio publikoan edo lur-azpian leudekeen instalazioetan kalteak eragingo balira, haien konponketa obra baimen hau eskatzen duenaren kontura izango da.
- Espazio publikoa okupatzea beharrezkoa balitz, Udalari baimena eskatu beharko zaio, adibidez, hondakinen kontenedorea jartzeko
- Eraikinean egingo diren lanetan, EKTari dagokionez, 450/2022 Errege Dekretua beteko da, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena Etxebizitzaren gaineko 3/2015 Legeak, ekainaren 1ekoa, arautzen duena bete beharko da.
- Kanpoaldeko fatxaden eta gainerako itxituren definizioak eta tratamenduak harreman harmoniatsua bermatu beharko dute aldameneko fatxada eta itxiturekin. Lizentzia emateko erabili den proiektuan ezarritakoari jarraitu beharko zaio, eta gaur egun dauden kolore berberak erabili beharko dira, eraikuntza-multzoaren harreman harmoniatsua hausten ez dutenak
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxieneko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan. Aldamua Intxausti kalean behar izanez gero, gutxienez 3 metroko pasabide librea utzi beharko da.
- Obrak gehienez sei hilabeteko (6) epean hasi beharko dira, lizentzia indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita, eta obrak hasi eta sei (6) hilabete igaro baino lehen amaitu beharko dira. Sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik obrak geldirik egoteko epea ezin izango da hiru (3) hilabete baino luzeagoa izan.
- Obren hasiera eta amaiera Udalari jakinarazi beharko zaizkio.
- Lizentziaren titularra izango da aurkeztutako dokumentazioan jasotako datuen benetakotasunaren erantzulea, baita obretan sortzen diren gorabeherena ere. Kasu horretan, Udalari aldeztetik jakinaraziko zaio inguruabar hori, eta azken



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



baldintza hori betetzen ez dela egiaztatzen duen dokumentazioa erantsiko zaio, eta gorabehera horien erantzuleztat joko da.

- Pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartuko dira, eta lanabesak eta materialak erortzea saihestuko da babes-biserak, olanak eta abar jarritz, indarrean dauden segurtasun- eta higiene-neurrien arabera.
- Lizenziaren titularra obren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzulea izango da; udalaren baimena ezin izango da erabili erantzukizun hori baztertzeko edo gutxitzeko.
- Lizenziaren titularra da obren ondorioz udal-bideei eragiten dizkien kalteen erantzulea.
- Lizenziak, beti, jabetze-eskubidea kontuan izan gabe eta hirugarrenei kalterik eragin gabe emango dira. Lizenzia eskatzailearen ardura izango da, hirugarrenei eskatu beharreko baimenak eskatzea.
- Azaroaren 8ko 31/1995 Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko legean oinarritutako eraikuntza lanetako segurtasun eta osasun arloan gutxienezko xedapenak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren eta 337/2010 dekretuak eginiko moldaketak errespetatu beharko dira obrak dirauen artean eraikuntza obretarako segurtasun eta osasun baldintza minimoak ezartzerakoan.

HIRUGARRENA.- Obrak amaitutakoan, ondorengo ziurtagiriak aurkeztu beharko dira udaletxean:

- Instalazioei eta egindako lanei dagokien obra amaiera ziurtagiria eta likidazioa. Obra amaierako dokumentazioa obra-zuzendari izan diren arkitektoak eta arkitekto teknikoak sinatua aurkeztu beharko da, baita dagokion Elkargo Ofizialak ikus-onetsia, non besteak beste ageriko den, lanek, indarrean dagoen araudiarekiko duten egokiera eta udalaren zuzenketa neurrien gauzatzea, sortu diren aldaketen memoria batekin.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



- 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan zehazten den dokumentazioa, Obra handietan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak eta –materialak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko.

1.– Obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzeko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta –materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

2.– Aurreko ataletan aipatzen den azken txostenarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu behar da:


a) Lur eta arroka ez poluituak betelan bat egiteko erabiltzen badira, dagokion udalak betelana egiteko emandako lizentziaren kopia aurkeztu behar da, edo, azpiegitura-lan linealen kasuan, organo eskudunaren baimenaren kopia, hondakinak hondakindegietan biltegituta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko araudian ezarritakoari jarraikiz.

b) Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duten ziurtagiriak, haiek egiteko baimena duten kudeatzaileek egindakoak, edo betelaneetarako lur eta arroka ez poluituak jaso dituzten pertsona baimendu titularrek egindakoak.

c) Hondakin balorizatuen eta in situ erabilitako eraikuntza- eta eraispén-materialen erabileraren eta kantitatearen zinpeko aitortpena.

- Instalatzaileak emandako ziurtagiria, instalazioaren egokitasunarena. Industria ordezkariak abalatuak.

6.- TALARANZKO KALEA 12KO LOKALA ETXEBIZITZA BIHURTU ONDOREN BIZIGARRITASUN LIZENTZIA EMATEA ONARTZEA.



Agiri hau benetako dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412
Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Gaia

Talaranzko kaleko 12an dagoen eraikineko lokala etxebizitza bihurtu ondorengo lehenengo okupazioaren eskakizuna.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2024ko otsailaren 22an, J.V.C. jaunak, M.A.A.T. andrearen izenean, obra txikiko baimena eskatu zuen Talaranzko kalea 12an dagoen eraikinaren beheko lokalean, U0051342S zenbaki finkoduna, etxebizitza egokitzeko. Horretarako, Javier Noceda Vegak eginiko proiektua aurkeztu zuen (Bizkaiko Aparailari eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofizialeko 1.902 zenbakidun elkargokidea). Proiektuak ez du Elkargo Ofizialaren ikus- onetsirik.

Bigarrena.- Aurkeztutako proiektuaren arabera, kontrataren behin-behineko kostua 15.670,00 eurokoa zen (exekuzio materialaren aurrekontua 13.168,07 eurokoa zela kalkulatu da, gastu orokorrak eta etekin industrialak PEMaren % 19 izanik).

Hirugarrena.- 2024ko martxoaren 8an, 2024 000001146 Alkatetza Dekretuaren bidez eskatutako obra lizentzia eman zitzaion.

Laugarrena.- 2025eko urtarrilaren 31n, Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitektoak txostena egin zuen lanak baimentzearen aldekoa.

Bosgarrena.- 2024ko abenduaren 11n, M.A.A.T. andreak obra amaierako dokumentazioa aurkeztu zuen. Horrez gain, lehenengo okupazioa eskatu zuen.


Seigarrena.- 2024ko urtarrilaren 31n, Bermeoko Udaleko Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitektoak txostena egin zuen.

Zazpigarrena.- 2025eko otsailaren 21ean Bermeoko Urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa.- 2025eko urtarrilaren 31n hurrengokoa adierazi zuen udal arkitektoak bere txostenean:

"Aurkeztutako idatziak dira:



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412
Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea: Erregistro nagusia



- *Enpresa instalatzailearen ziurtagiria, behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa betetzen dela dioena.*
- *Obra amaierako kitapena: 15.670,00 euroko (exekuzio materialaren aurrekontua 13.168,07 eurokoa zela kalkulatu da, gastu orokorrak eta etekin industrialak PEMaren % 19 izanik; exekuzio materialaren likidazioa segurtasun eta osasuneko partida kenduta 13.054,62 euro izango litzateke).*
- *Gernika-Lumoko jabetza-erregistroko tituluari eta kargei buruzko informazio-ohar soila. Bertan, jabetza etxebizitza dela adierazten da.*
- *Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzeko kontratua.*
- *Aldez aurreko jakinarazpenik gabeko hondakinak identifikatzeko dokumentuak, (ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuaren 6. artikulua eta III. eranskina).*
- *Etxebizitzaren egoera berrituaren planoak.*

“Argudioak

Egindako ikuskapenetan, proiektuan definitutako lanak gauzatu direla ikusi da.

Egindako obrak eta aurkeztutako dokumentazioa bat datoz aplikaziozkoa den hirigintza araudiarekin, beraz oker edo hutsik ezean, hirigintza ikuspuntutik ez legoke eragozpenik lehen erabilerako lizentzia emateko aipatutako etxebizitzari.

Proposamena


Txosten honetan azaldutakoa, oker eta hutsik ezean, interesdunari jakinaraztea proposatzen da.”

Bigarrena.- Hasteko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak xedatutakori jarraituz, 207 artikuluan aipatutako ekintzak hirigintzako lizentzia behar dute, besteak beste, obren lehenengo erabilpenak.

Kasu honetan, obra lizentzia eman beharra dago, 2/2006 Legeko 207.1 artikulua ezartzen duen bezala. Baimena emateko prozedurari dagokionez, honela laburbildu daiteke:

a) Hasiera

Prozedura interesdunak eskaturik hasiko da. Horretarako, eskabidea aurkeztu beharko



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



da eta dagokion dokumentazio teknikoa erantsi: proiektua, kasu bakoitzeko legeriak eskatzen dituen baimenak, eta, beharrezkoa izanez gero, dagokion emakida. (207.2. artikulua)

b) Instrukzioa

Baimena eman aurretik, udal zerbitzu teknikoek beharrezko txostenak egin beharko dituzte, eskatutako lizentzia hirigintzako legediarekin bat datorrela egiaztatzeko. (210.4.artikulua)

Prozeduraren instrukzioan zehar baimenaren eraginpeko beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea derrigorrezkoa den kasuetan, udalak eskabidea aurkeztu dela jakinarazi beharko zaie, hilabeteko epean behar diren txostenak egin ditzaten, bere eskumenaren arabera. Hilabeteko epean txostenik ematen ez bada, udal baimena emateko prozedurarekin jarraitu ahal izango da. Kasu honetan, ez da beharrezkoa beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea. (210.3. artikulua)

c) Ebazpena

Behar diren txostenak egin ondoren, organo eskudunak baimena emateari buruzko ebazpena emango du, espedientean dauden datu guztiak ikusi ondoren (210.4. artikulua), eta hori ezezkoa denean, arrazoitu egin beharko da (210.5. artikulua).

Kasu honetan, alkateak izango du eskumena, hirigintza lizentziarako 2/2006 Legeko 209.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, TAOLeko 21.1.q) artikularekin bat etorritik, baina eskumen hori 2024ko apirilaren 24ko 2024 000001886 Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Gainera, lizentzia ematen duen ebazpenak, gutxienez, honako honek jaso beharko ditu: obra hasteko epea, egikaritzeko gehieneko epea eta sustatzaileari egotzi ahal jakon arrazoiren batengaitik obren exekuzioa etenda egon daitekeen gehieneko aldia, 2/2006 Legearen 215. artikulua ezartzen duen bezala.

Hirugarrena: Araudi aplikagarriak ez badu berariaz jasotzen ordenantza baten bidez (Bermeoren kasuan bezala) eta modu subsidiarioan, berariazko ebazpena jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da gehienez, lizentzia-eskaera aurkezten denetik kontatzen hasita, udalak zuzentzeko edo hobetzeko errekerimendurik egin barik (2/2006 Legearen



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



210.7 artikulua).

Gure kasuan, Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 207 r) eta 210 artikuluek eta Hirigintza Diziiplina arautzen duen ekainaren 23ko 2187/ 1978 Errege Dekretuaren 3 eta 4 artikuluek xedatutakoari jarraituz, espedientearen tramitazioa indarrean dagoen araudiarekin bat dator. Era berean, eskaria bat dator be hirigintza araudiarekin, udal arkitektoak 2025eko urtarrilaren 31n egindako txostenean aipatzen den bezala.

Laugarrena: Aurretiaz adierazi den moduan, Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legeko 209.2 artikulua eta Toki- administrazioen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 21.1.q) artikulua kontutan hartuta, hirigintza lizentziak emateko eskumena alkatearena den arren, eskumen hori 2024ko irailaren 24ko 2024 000001886. zenbakidun Alkatetza Dekretuz Tokiko Gobernu Batzarrak eskuordetuta dauka.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2024ko otsailaren 22an, J.Vi.C. jaunak, M.A.A.T andrearen izenean Bermeoko Talaranzko kalea 12an dagoen eraikineko lokala etxebizitza bihurtu ondoren, bizigarritasun lizentzia ematea udal arkitektoak 2025eko urtarrilaren 31n egindako aldeko txostena ikusirik.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau helaraztea errenta sailari, dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri eman hurrengo Osoko Bilkuran.


7.- AGARRE AUZOTIK EGURRA ATERATZEKO LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

Xedea

Agarre auzotik egurraren aprobetxamendua ateratzeko lizentzi eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2025eko urtarrilaren 30ean, herri honetako Agarre auzotik egurraren aprobetxamendua ateratzeko eskaria aurkeztu eban B95561379 zenbakidun



interesdunak.

Bigarrena.- Eskari horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako baimena aurkezten dau, datu honeekin:

Egurraren jabea: A.M.Z.U.–L.Z.U

Lekua (Katastro): 11 Poligonoa : 44 – 60 partzelak.

Egurraren kopurua: 1.577 m³.

Hirugarrena.- Udal teknikariek erabiliko diran bideak ikustatu ondoren, argazkiak atara dabez.

Laugarrena: Lanak hasi baino lehen, eta kontuan eukirik egurraren kopurua (1.577 m³), 8.500,00 eurotako fidantza aurkeztu beharko da udal honetan.

Bosgarrena: Aprobetxamenduaz baliatzen direnek (jaubeak) edozein kasutan, bermatu egin beharko dabe, bai bidearen egoera edo beste edozein kasu berezirik aurkezten bada.

Seigarrena.- Aprobetxamenduaren jaubeak, udalak agintzen den neurriak hartu beharko dau.

Argudioak.-

Lehenengoa.- Espediente honetan legezko urrats guztiak bete dira.

Bigarrena.- Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dauzen 7/1985 Legearen 21.1.a) artikuluan jasotakoaren arabera, lizentzia emoteko ahalmena alkateari jagoko, baina 2024ko apirilaren 24ko, 1886 zenbakidun Alkatetza Dekretuz onartutako delegazioen ondorioz, ahalmen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan dago delegatuta.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA.- B95561379 zenbakidun interesdunari eskatutako lizentzia emotea. Lanak hasi baino lehen 8.500,00 euroko fidantza aurkeztu behar da udal honetan.

Egurraren jabea: A.M.Z.U – L.Z.U



Lekua (Katastro): 11 Poligonoa : 44– 66 partzelak.

Eguraren kopurua: 1.577 m³.

BESTE BALDINTZA BATZUK.-

1. Ezin da erabili:
 - Har ibilgailurik.
 - Katez elkar lotutako ibilgailurik.
 - Zolu gainean irristatzeko ibilgailurik.
 - Errodadura bandadun ibilgailurik.
 - Gehienezko orotarako pisua 26 tonakoa baina handiagoko ibilgailuri eta hiru baino ardatz gehiago duen kamioirik.
 - Ibilgailu astunen zirkulazioa, bereziki, lurra, egurra, apeak eta beste material batzuk garraiatzeko erabilitakoaren baimena ematea Udalaren esku geratzen da, beti ere, uneko eguraldiaren arabera.
2. Bideen garbiketa:
 - Aprobetxamenduaz baliatzen direnek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideok edozein erabilgarritasunerako prest izango direla, aprobetxamendua irauten duen bitartean beharrezkoan izan litezkeen garbiketak eta konponketak eginez. Hala egiten ez bada, zeregin honetaz udala bera arduratuko da, baina kostuan haien kontura izanik. Dena dela, aprobetxamenduaz baliatuko direnek, ahal duten guztia egin beharko dute, bideotako zirkulazioarengan inolako kalterik ez eragiteko. Bideetan ezin izango da enborrik ez adarrik utzi. Gainera, ibilgailuek bideotan utzitako lurrak, harriak eta abar ere baztertu egin beharko dituzte bidetik segidan. Materialen karga aprobetxamenduaren terreno barruan egin beharko da, eta inoiz ere ez, udalaren errepide gainean.
3. Konponketa lanak:
 - Txosten teknikoak ikusita, baimena eman zaionari, bideotan egin beharreko konponketen berri, hala balitz, emango zaio, lanok egiteko epea jakinaraziz. Epe hori bukatu ondoren konponketan egin izango ez balira, udalak berak egingo dio zeregin honi haren kontura, kostua alde



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412
Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



aurretik ezarritako fidantzak kenduko delarik. Fidantzako dirutza nahikoa izan ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko da harik eta kalte guztiak ordaindu arte.

Egindako kalteak konpontezinak balira, hondatutako ondasunen edo egindako kalteen balioa ordainduko zaio udalari.

Udal bide berberen aprobetxamenduaz aldi berean bat baino gehiago aprobetxatuz gero, kalterik balitz, erantzukizuna erabiltzaileen bidezko banaketa egingo da.

4. Bitartekaritza, itunebidea eta arbitraia:

- Kalteen edo konponketen balorazioa dela eta, udalaren eta erabiltzailearen artean ez balego adostasunik, bi alderdiok, horretarako ados jarrita, bitartekaritza, itunebide eta arbitraiazko auzitan sartu ahal izango dira, dena dela honetarako hitzarmena, itunea, adostasuna eta kontratua sinatu beharko dutelarik. Auziotatik sor litezkeen gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

5. Harrobiak, mehatz ihardurak eta lurrak lekuz aldatzea:

- Bideok harrobietako materialeak garraiatzeko edo lurrak lekuz aldatzeko erabiltzen badira, jarduera honetaz arduratzen diren enpresak izango dira bideen mantenimendu ibilbide guztian arduratuko direnak.
- Aldiz-aldika bideok ikustatu egingo dituzte udal zerbitzu teknikoak, eta ikusitako kalte guztiak aipatutako enpresa horrek ordaindu beharko dituzte.


8.- 72405948-Q NAN ZENBAKIDUN LANGILEAK EGINDAKO ESDOSKITZE LIZENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

Xedea

Edoskitze lizentzia. 72405948-Q NAN zenbakia duen bitarteko udaltzainaren eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa: Bitarteko udaltzaina den 72405948-Q NAN zenbakidun langileak dagokion



edoskitzerako egunean ordubeteko baimena batzea eta 2025eko martxoaren 10etik 14ra arte (biak barne) eta apirilaren 16tik 18ra arte (biak barne) disfrutatzea eskatu du.

Argudioak

Lehenengoa: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen akordioaren 53. artikulua honako hau ezartzen du:

“2. Hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren bati bularra emateko, langileek egunean ordu bat lana uzteko aukera izango dute, eta erditze anitza izan bada, baimena proportzionalki areagotuko da.

Eskubide honen ordez, lanaldi arrunta lanaldiaren hasierako edo amaierako ordu erdia murriztu ahal izango da, helburu berbera izanik.

3. Edoskitze artifizialeko kasuetan, lanaldia eteteko edo murrizteko eskubidea amak zen aitak hartu ahal izango du, eta aita izan beharko da aldez aurretik arrazoitutako eskaera aurkeztuko duena; ama langilea dela eta baimena ezin duela hartu edo hartzerik ez duela nahi egiaztatu beharko du.

4. Aurreko paragrafoan aipatutako lizentzia hartzeko eskubidea izango du langileak edo, bestela, egunetik egunera zenbatutako orduak batu eta, langilearen egutegiaren arabera, eta amatasun baja bukatu ostean hartu. Eguneko lizentzia ordua hartzen hasi ahal da, eta epe jakin batetik aurrera batzen hasi eta denak batera hartu. Batu daitezkeen orduak gutxienez hilabete bati dagozkionak izan daitezke.

...

6. Lizentzia honen ordutegia eta epea zehaztea pertsonalari dagokio bere ohiko lanaldiaren barruan; pertsonalak bere ohiko lanaldira itzuliko den eguna baino 15 egun lehenago jakinarazi beharko dio erakundeari.”

Bigarrena: Bermeoko Udala eta bere organismo autonomoetako langileen lan baldintzak arautzen duen 2004. urterako hitzarmenaren bederatzigarren artikulua ezarritakoaren arabera, emakumezko enplegatu publikoak bere lanaren ordubeteko geldiunerako eskubidea izango du, **hamalau** hilabetekoa baino gazteagoa den seme-alabaren berezko edospenaldirako edo edospenaldi artifizialerako erabiltzen duenean.

Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

BAKARRA: Bermeoko Udaleko lan kontratudun lan baldintzak arautzen dituen akordioaren 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, 72405948-Q NAN zenbakidun bitarteko udaltzainak dagokion edoskitzerako egunean ordubeteko baimena batzea onartzea, 2025eko martxoaren 10etik 14ra arte (biak barne) eta apirilaren 16tik 18ra arte (biak barne) disfrutatzea.

9.- 72400397-P NAN ZENBAKIDUN LANGILEAK UMEA ZAINTEKO EGINDAKO ESZEDENTZIA ESKARIA ONARTZEA.

Xedea

Musika eskolako biolontxeloko irakaslea den Y.N., 72400397-P NAN zenbakidun langileak, umea zaintzeko egindako eszedentzia eskaria onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2025eko martxoaren 3an, Musika eskolako biolontxeloko irakaslea den 72400397-P NAN zenbakidun langileak umea zaintzeko eszedentzia ematea eskatu du, 2025eko apirilaren 1etik 2025eko ekainaren 30ra arte.

Argudioak

Bakarra: Langileen Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.3 artikulua honako hau ezartzen du:

Artículo 46. Excedencias.

1. La excedencia podrá ser voluntaria o forzosa. La forzosa, que dará derecho a la conservación del puesto y al cómputo de la antigüedad de su vigencia, se concederá por la designación o elección para un cargo público que imposibilite la asistencia al trabajo. El reingreso deberá ser solicitado dentro del mes siguiente al cese en el cargo público.

2. El trabajador con al menos una antigüedad en la empresa de un año tiene derecho a que se le reconozca la posibilidad de situarse en excedencia voluntaria por un plazo no menor a cuatro meses y no mayor a cinco años. Este derecho solo podrá ser ejercitado otra vez por el mismo trabajador si han transcurrido cuatro años desde el final de la anterior excedencia voluntaria.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidea:
Erregistro nagusia



3. Los trabajadores tendrán derecho a un periodo de excedencia de duración no superior a tres años para atender al cuidado de cada hijo, tanto cuando lo sea por naturaleza, como por adopción, o en los supuestos de guarda con fines de adopción o acogimiento permanente, a contar desde la fecha de nacimiento o, en su caso, de la resolución judicial o administrativa.

También tendrán derecho a un periodo de excedencia, de duración no superior a dos años, salvo que se establezca una duración mayor por negociación colectiva, los trabajadores para atender al cuidado del cónyuge o pareja de hecho, o de un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad y por afinidad, incluido el familiar consanguíneo de la pareja de hecho, que por razones de edad, accidente, enfermedad o discapacidad no pueda valerse por sí mismo, y no desempeñe actividad retribuida.


La excedencia contemplada en el presente apartado, cuyo periodo de duración podrá disfrutarse de forma fraccionada, constituye un derecho individual de los trabajadores y trabajadoras. No obstante, si dos o más personas trabajadoras de la misma empresa generasen este derecho por el mismo sujeto causante, la empresa podrá limitar su ejercicio simultáneo por razones fundadas y objetivas de funcionamiento debidamente motivadas por escrito debiendo en tal caso la empresa ofrecer un plan alternativo que asegure el disfrute de ambas personas trabajadoras y que posibilite el ejercicio de los derechos de conciliación. Cuando un nuevo sujeto causante diera derecho a un nuevo periodo de excedencia, el inicio de la misma dará fin al que, en su caso, se viniera disfrutando.

El periodo en que la persona trabajadora permanezca en situación de excedencia conforme a lo establecido en este artículo será computable a efectos de antigüedad y el trabajador tendrá derecho a la asistencia a cursos de formación profesional, a cuya participación deberá ser convocado por la empresa, especialmente con ocasión de su reincorporación. Durante el primer año tendrá derecho a la reserva de su puesto de trabajo. Transcurrido dicho plazo, la reserva quedará referida a un puesto de trabajo del mismo grupo profesional o categoría equivalente.

No obstante, cuando la persona trabajadora forme parte de una familia que tenga reconocida la condición de familia numerosa, la reserva de su puesto de trabajo se extenderá hasta un máximo de quince meses cuando se trate de una familia numerosa de categoría general, y hasta un máximo de dieciocho meses si se trata de categoría especial. Cuando la persona ejerza este derecho con la misma duración y régimen que el otro progenitor, la reserva de puesto de trabajo se extenderá hasta un máximo de dieciocho meses.

En el ejercicio de este derecho se tendrá en cuenta el fomento de la corresponsabilidad entre mujeres y hombres y, asimismo, evitar la perpetuación de roles y estereotipos de género.

4. Asimismo podrán solicitar su paso a la situación de excedencia en la empresa los trabajadores que ejerzan funciones sindicales de ámbito provincial o superior mientras dure el ejercicio de su cargo representativo.



5. El trabajador en excedencia voluntaria conserva solo un derecho preferente al reingreso en las vacantes de igual o similar categoría a la suya que hubiera o se produjeran en la empresa.

6. La situación de excedencia podrá extenderse a otros supuestos colectivamente acordados, con el régimen y los efectos que allí se prevean.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA: Langileen Estatutuaren Legearen testu bateragina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 46.3 artikulua ezarritakoa aintzat hartuz, Musika eskolako biolontxeloko irakaslea den 72400397-P NAN zenbakidun langileari seme-alabak zaintzeko eszedentzia eskaria onartzea 2025eko apirilaren 1etik ekainaren 30era arte.

BIGARRENA: Interesdunari erabagi hau jakinaraztea.

HIRUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

10.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.


Ez da ezer adierazi.

11.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun paperean jasoko da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025 09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412
Data: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unida: Berregistro nagusia




Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20250318_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "2025eko Martxoaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarra" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditente elektronikoari erantsitako dokumentu elektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

8a18e29c6c561918fe0cc20b5f4fe5a67ea2943f5960858a2dec4a569e3c75f0

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua/>

Orrri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E900126C7400Y1H0Y5K2H907

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA -
20/03/2025
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 20/03/2025
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 20/03/2025
09:21:37

DOCUMENTO: 20251207412

Fecha: 20/03/2025
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia

